

Udan kontziliazioa errazteko eta haurren aisialdi eskaintza handitzeari buruzko KONTROL MOZIOA

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko irailaren 16an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Uda amaitu berri den honetan, une egokia da udan zehar familien kontziliazioa errazteko eta haurren aisialdirako Donostian dugun eskaintza aztertzeko. Izan ere, haur askorentzat udako oporrak familian pasatzeko denboraldi ederra den bitartean, beste familia ugarentzat kontziliaziorako erronka zaila bilakatzen da. Horregatik, kontziliaziorako erraztasunak emateak eta uda familian pasatu ezin duten haurren aisialdian arreta jartzeak lehentasunezkoa beharko luke uda garaian Udalarentzat.

Errealitatea, ordea, bestelakoa da. Hedadura handiko Haurtxoko eta Gazteleku sarea dugu hirian, erabilera datuetan gora doana pandemia garaitik hona. Jakinik sare horren lehen helburua haur eta gaztetxoek aisialdi hezitzailea zentroan jartzen dela, kontziliaziorako erraztasunak ematen dizkie zenbait familiari, arratsaldez seme-alabek bertan modu seguruan eta zainduan denbora pasatzeko aukera baitute (5 urtetik gorako haurrez ari gara, betiere). Udan, baina, itxita egon dira espazio horiek, uztailean eta abuztuan.

Era berean, udan izaten ditugun udaleku ireki edo taldetxoek eskaintza ere aipatzekoa da. Eskaintza zabalaren artean, eskaintza publikoa “Oporretan Euskaraz udalekuen” bidez egiten da, uztailean zehar. Horren bidez, 5-11 urte bitarteko haurrak hiriko hainbat lekutan jaso eta goizean zehar askotariko jarduerak egiten igarotzen dute talde horiek. Baina, esan bezala, eskaintza hori, batzuetan eskaria baino txikiagoa izateaz gain, goizean zehar lau ordu eta erdira mugatzen da.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Laburbilduz, ez dugu hiri osoan arratsaldez hurren aisialdira eta zaintzara, eta modu horretan, familietako kontziliazioa erraztera bideratuta dagoenik. Hutsune handia, zalantzarik gabe, eta familia batzuk (emakumeak, normalean) udan zehar lanaldia murriztera, aitona-amonak hurren zaintzara lotzera edota hurrak zaintzeko zerua eta lurra mugitzera behartzen dituena.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azter dezala haurtxokoen zerbitzua (auzo batzuetan bada ere) udan ere eskaintzeko aukera.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azter dezala udaleku irekien eskaintza arratsaldera luzatzeko aukera.

Donostian, 2024ko irailaren 19an

Izar Hernando Ibero
EH BILDU udal taldeko zinegotzia